

EMAITZAK ETA SAILKAPENAK ▶

FUTBOLA

Espainiako Lehen Maila.
Bartzelona-Reala 1-0
Saillkapena ▶

1. Bartzelona 33 puntu
20. Reala 6 puntu

Espainiako Superliga.

Reala-Bartzelona 2-1
Saillkapena ▶

1. Athletic 32 puntu
8. Reala 12 puntu

Espainiako emakumezkoen Liga.

Añorga-San Ignacio 0-1
Saillkapena ▶

1. Mariño 30 puntu
2. Añorga 27 puntu

Espainiako 2.B Maila.

Sanse-Logroñes 2-2
Saillkapena ▶

1. Palentzia 33 puntu
8. Sanse 23 puntu

Emakumezkoen Liga, 1. multzoa.

Beti Gazte-Intxaurdi B 6-2
Luberri atsedena

Saillkapena ▶

1. Tolosa 28 puntu
3. Luberri 20 puntu

Emakumezkoen Liga, 2. multzoa.

Euskalduna-Groseto 2-1
Hernani-Amara Berri 4-2

Urnietta-Añorga 0-2
Vasconia-Ursubil 1-0

Intxaurdi-Ostadar 5-1
Saillkapena ▶

1. Añorga 34 puntu

2. Intxaurdi 34 puntu

3. Vasconia 28 puntu
5. Amara Berri 22 puntu

10. Groseto 2 puntu

Espainiako 3. Maila.

EHU-Laudio 2-1
Saillkapena ▶

1. Gernika 31 puntu
15. EHU 15 puntu

Preferentea.

Martutene-Mutriku 1-1
Hondarribia-Berio 1-2

Saillkapena ▶

1. Zarautz 32 puntu
6. Berio 22 puntu

18. Martutene 11 puntu

Lehenengo Erregionala.

1. multzoa.

S. Tomas Lizeoa-A. Berri 3-5

Lengoak-Dumboa 0-1
Oiarzun-Hondarribia 3-2

Roteta-Mundarro 0-2
Behobia-Intxaurrondo 2-1

Saillkapena ▶

1. Euskalduna 31 puntu
2. Roteta 25 puntu

3. Amara Berri 23 puntu
11. S. Tomas Lizeoa 15 puntu

12. Lengoak 13 puntu
16. Intxaurrondo 6 puntu

Bigarren Erregionala, 2. multzoa.

La Salle-Lazkao 7-1
Ordizia B-Axular 2-2

Saillkapena ▶

1. Urnietta 31 puntu
3. La Salle 20 puntu

6. Axular 14 puntu

Espainiako Jubenilen Ohorezko Maila.

Antiguoko-Real Union 3-1
Tolosa-Reala 1-1

Saillkapena ▶

1. Antiguoko 35 puntu
2. Reala 34 puntu

Espainiako Jubenilen Liga.

Athletic-Reala 0-3
Antiguoko-Aurrera 4-0

Saillkapena ▶

1. Reala 36 puntu
3. Antiguoko 24 puntu

Euskadiko Jubenilen Liga.

Zalla-Lengoak 1-1
Union Txiki-Antiguoko 0-2

Amorebieta-Añorga 2-1
Saillkapena ▶

1. Barakaldo 29 puntu
5. Añorga 26 puntu

11. Lengoak 16 puntu
13. Antiguoko 11 puntu

Euskadiko Kadeteen Liga.

Reala-Barakaldo 1-0
Añorga-C. Durango 0-0

Antiguoko-Arznabarra 6-0
Saillkapena ▶

1. Reala 36 puntu
10. Antiguoko 16 puntu

16. Añorga 7 puntu

ARETO FUTBOLA

Espainiako Lehen A Maila.

EHU-Muriedas Urrutia 10-4
Saillkapena ▶



Esteban Martinez.

1. Logroño 34 puntu
14. EHU 9 puntu

SASKIBALOA

ACB Liga.

Bruesa-Real Madrid 71-87
Saillkapena ▶

1. Real Madrid 12 irabazi; 0 galdu
16. Bruesa 4 irabazi; 8 galdu

Lehen maila, A multzoa (gizonezkoak).

Ardoi-Easo 69-63
Saillkapena ▶

1. Berrio Otxoa 8 irabazi; 3 galdu
2. Easo 6 irabazi; 6 galdu

Lehen maila, B multzoa (gizonezkoak).

Cafes Aitona-Viajes Marfil 77-58
Saillkapena ▶

1. Baskonia 10 irabazi; 1 galdu
5. Cafes Aitona 4 irabazi; 7 galdu

ESKUBALOA

Euskadiko Txapelketa (gizonezkoak).

Egia-Erromo 29-22
Saillkapena ▶

1. Egia 21 puntu

ERRUGBIA

Espainiako Ohorezko Maila (gizonezkoak).

Spyro BB-Cisneros 31-18
Saillkapena ▶

1. El Salvador 28 puntu
7. Spyro Bera Bera 10 puntu

Espainiako Lehen B Maila (gizonezkoak).

Gaztedi-Athletiko 11-3
Saillkapena ▶

1. Eibar 28 puntu
7. Athletiko 12 puntu

BELAR HOCKEYA

Espainiako Ohorezko Maila (gizonezkoak).

Athletiko-Terrassa 0-2
Saillkapena ▶

1. Polo 18 puntu
4. Athletiko 10 puntu

Espainiako Ohorezko Maila (emakumezkoak).

Reala-SVP 51 3-0

Saillkapena ▶

1. Club de Campo 14 puntu
7. Reala 7 puntu

Espainiako Lehen Maila (emakumezkoak).

Olimpia-Reala 2-0
Saillkapena ▶

1. Sardinerro 12 puntu
6. Reala 7 puntu

IZOTZ HOCKEYA

Espainiako Lehen Maila.

Majadahonda-Txuri Urdin 5-4
Saillkapena ▶

1. Puigcerda 19 puntu
3. Txuri Urdin 11 puntu

PATIN HOCKEYA

Espainiako Iparraldeko Liga.

Ibaiondo-Laganak 10-2
Mundaiz atsedena

Saillkapena ▶

1. Ibaiondo 33 puntu
5. Mundaiz 17 puntu

TXIRRINDULARITZA

Pistako Txapelketa.

Seigarren jardunaldia.

Open mailako sailkapen orokorra ▶

1. Javier Azkue (Bruesa) 138 puntu
2. Iñaki Anzizar (Bruesa) 120 puntu

3. Jon Abad (Azpiru) 113 puntu

IGERIKETA ▶ MINUSBALIATUEN MUNDUKO TXAPELKETA

Oribe: «Lorturiko dominak ez dira nireak, donostiar guztionak baizik»

Richard Oribe igerilari antiguatarrak urrezko hiru domina eta zilarrezko bat irabazi ditu Durbanen jokatu berri duten Minusbaliatuen Munduko Igeriketa Txapelketan

IÑAKI ESNAOLA

Irribarre batekin abiatu eta irribarre zabalago batekin itzuli da Richard Oribe Durbaneko Minusbaliatuen Munduko Txapelketatik. Antiguoko igerilariak beste behin ere marka guztiak hautsi eta lau domina irabazi ditu. Urrezko hiru eta zilarrezko bat. «Bidaia luzea izan da eta oso nekatuta iritsi naiz. Hala ere, esperientziak eta lau dominek merezi izan dute», adierazi dio Oribe irutxuloko HITZARI. Durbaneko lorpenen ondoren, 2008an Pekinen jokatu diren Paroalimpiar Jokoak prestatzen hasiko da Javier de Aymerich bere entrenatzailearekin.

Paco Yoldi igerilekuan ibiltzen diren lagun eta kirolariek dagoeneko makina bat aldiz zoriondu dute Richard Oribe bere lorpenengatik. Oraingo honetan, urrezko hiru domina eta zilarrezko bat ekarri ditu Hegoafrikako Durban hiririk. «Lortu ditudan dominak ez dira nireak bakarrik, donostiar

guztionak baizik. Nire familia, Javier entrenatzailea eta inguruko jendea ezinbestekoa izan da orain arteko palmaresa lortzeko». Durbaneko Minusbaliatuen Munduko Txapelketan 100 zein 200 metro libreko probetan eta 4x50 metro libre txandakakoan —munduko errekorra eginez— lortu zituen urrezko dominak. Zilarrezkoa 50 metro libreko proban eskuratu zuen. Dena dela, urrezkoa balitz bezala ikusten du anti-

guatarrak. Izan ere, proba irabazi zuen igerilariak Oribe baino minusbaliatuen txikiagoa du, eta antolatzaileei kexa aurkeztu ondoren, beste kategoria batera pasa zuen.

Oribe gustura izan da Durbanen. «Oso lasai ibili nintzen eta oso ondo pasatu nuen han bildu ginenekin». Hala ere, Javier entrenatzailea ez joan izanarik tristetu zuela dio. «Ez dakit zergatik ez zuten gonbidatu. Dena zor diot berari».

Arkaitz Garcia ere gustura

Arkaitz Garcia igerilariak ez zuen dominarik lortu baina oso ondo aritu zen. Julia Perez bere entrenatzaileak esan duenez, Amara Berriko gaztea «gogotsu» eta «dehiakor» aritu zen parte hartu zuen bi probetan. Lehenbizi 50 metro libreetan parte hartu zuen Richard Oriberekin batera. Hamalagarren postuan sailkatu zen. 50 metro bizkar esti-

loan, berriz, bere helburuetako bat lortu zuen: finalean sartzea. Azkenean seigarrena izan zen. Hala ere, Garcia oso pozik dagoela esan du bere entrenatzaileak. Izan ere, laugarren eta bosgarren geratu zirenekin batera iritsi zen helburuarekin batera iritsi zen. Orain 2008an Pekinen jokatu diren Paroalimpiar Jokoetarako prestatzen hasiko dira. ◀



Oribe lau dominekin Anoetako Paco Yoldi igerilekuan. I. ESNAOLA